

PRENTSA OHARRA: 2026.06.17

Etxepare Euskal Institutuak 654.000 euro bideratuko ditu aurten euskal kultura nazioartekotzeko AT! dirulaguntzetara

- Laguntzen helburua da sortzaileen eta kultura alorreko profesionalen mugikortasuna sustatzea eta literatura itzulpenak bultzatzea

- Laguntzak, besteak beste, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak eta ikusizkoak, zinema, literatura eta itzulpenaren esparruko proiektuak babesteko izango dira

Donostia, 2026ko ekainaren 17a-. Etxepare Euskal Institutuak 654.000 euro bideratuko ditu aurten euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa bultzatzea helburu duten AT! laguntzetara. Dirulaguntza hauen bidez Institutuak artisten eta kultura alorreko profesionalen mugikortasuna sustatu, lanen eta kultur proiektuen nazioarteko zirkulazioa erraztu du eta euskal sorkuntzaren presentzia indartzen laguntzen du testuinguru eta merkatu berrietan.

Dirulaguntza hauek lau deialditan banatuta daude: antzerkia, dantza, musika eta arte plastiko eta ikusizkoen alorreko sortzaileen mugikortasuna; literatura eta zinemaren alorreko sortzaileen mugikortasuna; irabazi asmorik gabeko nazioarteko kultura jarduerak, eta literatura itzulpenak.

Antzerkia, dantza, musika eta arte plastikoak eta ikusizkoak

Lehenbiziko deialdiak **antzerkia, dantza, musika eta arte plastiko eta ikusizkoen eremuko sortzaileen nazioarteko mugikortasuna laguntzea** du xede. Dirulaguntza honen bidez, Etxepare Euskal Institutuak euskal artista eta konpainien parte hartzea babesten du euskararen eremu geografikotik kanpo egiten diren jaialdi, erakusketa, egonaldi, bira eta bestelako kultur jardueretan, haien nazioarteko proiektzioa indartzen

lagunduz eta nazioarteko zirkuitu, programazio eta sareetan duten presentzia sustatuz.

Azken urteetan bezala, **deialdi honek izaera automatikoa edukiko du**, prozedura bizkortu eta sortzaileen ziurgabetasuna murrizteko xedez. Horrela, laguntzak baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean banatuko dira, aurrekontu-zuzkidura agortu arte. Ez da balorazio batzorderik egongo. Halaber, sortzaileen likidezia-beharrei modu egokiagoan erantzuteko asmoz, ordainketaren erdia hasieran jasoko dute eskatzaileek, eta beste erdia, zuriketa egin ondoren.

Laguntza hauek jarduera horiek gauzatzeari lotutako joan-etorri, ostatu eta mantenu gastuak finantzatzeko aukera emango dute. Deialdiak 511.000 euroko zuzkidura du guztira, honako modalitate hauen artean banatuta:

- AT! Musika: 175.000 euro.
- AT! Antzerkia: 166.000 euro.
- AT! Dantza: 90.000 euro.
- AT! Arte plastikoak eta ikusizkoak: 80.000 euro.

Eskaerak egiteko **epea irailaren 30era arte egongo da zabalik.**

Zinema eta literatura

Halaber, Etxepare Euskal Institutuak **30.000 euro bideratuko ditu zinegile eta idazleei zuzendutako AT! Zinema eta AT! Literatura** laguntzetarako. Laguntza hauen helburua da zinegile eta idazle horien lanen nazioarteko zirkulazioa sustatzea eta hauek nazioarteko garrantzia duten jaialdi, topaketa profesional, aurkezpen, azoka eta bestelako kultur ekitaldietan parte har dezaten erraztea.

Eskatzaileek beren lana aurkeztera gonbidatuak izan diren jardueretan parte hartzeko beharrezkoak diren joan-etorri eta ostatu gastuak finantzatzeko aukera izango dute laguntza honi esker. Eskabideak aurkezteko **epea azaroaren 2ra arte egongo da zabalik**, edo aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Puntuazio-irizpide eta prozedurak

Antzerkia, dantza, musika eta arte plastiko eta ikusizkoen alorreko mugikortasunerako dirulaguntza deialdia lehiarik gabekoa izan arren, aurreko urteetan erabili diren balorazio irizpideak oinarri hartuta, Institutuak bilatzen dituen helburuen arabera puntuatuko da, jakinik helburu nagusia dela oinarrizko baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak laguntzea. Irizpide horien artean daude jarduera hartuko duen testuinguruaren oihartzuna edo prestigioa, proiektuaren autofinantzaketa maila, euskararen presentzia proiektuan, genero irizpidea, eta eskatzailearen presentzia digitala.

Literatura eta zinema alorreko mugikortasunerako dirulaguntzen kasuan berriz, jaso ahala ebatziko dira, diru-zuzkidura agortu arte edo epea amaitu arte.

Irabazi asmorik gabeko kultura jarduerak

Halaber, **ekainaren 20tik aurrera** irabazi asmorik gabeko nazioarteko kultur jarduerak egiteko laguntza eskatu ahal izango da. Bi prozeduratan banatuta dago deialdia. Batetik, AT! Euskal dantza eta abesbatzak, talde hauen nazioarteko proiektuak babestea xede duena, 30.000 euroko zuzkidurarekin. Eta bestetik AT! Euskal kultura, Etxepare Euskal Institutuaren gainerako deialdien babesean laguntzarik jaso ezin duten egitasmoak burutzeko eskatu ahal izango dena eta 20.000 euroko zuzkidura duena. Eskaerak aurkezteko **epea uztailaren 20ra arte egongo da zabalik.**

Dirulaguntza hauek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan errolda edo egoitza soziala duten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte. Gainera, zabaldu nahi den lanaren komunikazio-hitza euskara den kasuan, sozietate-egoitza edo helbidea Euskal Herrian kokatuta duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, egoitza Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian dutenak ere bai.

Literatura itzulpena

Amaitzeko, **63.000 euroekin lagunduko dira literatura itzulpenak.** Itzulpena ezinbesteko tresna da euskal literaturaren nazioartekotzerako, literatura lanak beste hizkuntza, literatura-sistema eta kultur testuinguru batzuetara iristea ahalbidetzen baitu. Laguntza hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak euskal egileen lanen zabalkundea

sustatzea eta mundu osoko irakurle berriengana iristea bilatzen du.

Ekainaren 4an ireki zen deialdia, eta **uztailaren 3ra arte egongo da zabalik**. Bi itzulpen jarduera lagunduko dira: jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura lanak edozein hizkuntzatarara itzultzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura lanak euskara ez den beste edozein hizkuntzetara itzultzea.

AT! laguntzen bidez, Etxepare Euskal Institutuak euskararen eta euskal kulturaren nazioartekotzearekiko duen konpromisoa berresten du, artista, sortzaile eta kultur profesionalak nazioarteko espazio, zirkuitu eta elkarrizketetan parte hartzeko aukerak zabalduz.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus